

Funtsezko jarduerak:

Gure funtsezko jarduera negozio eredua funtzionatzeko aplikazioa sortzea eta kudeatzea da. Funtsezko jardueren artean ekoizpena daukagu, atal honetan hainbat gai jorratzen ditugu; hasteko produktua diseinatuko dugu lan hau egiteko, enpresa informatiko batekin aliatuko gara aplikazioaren oinarria egiteko, guk aplikazioaren irudi basikoaren ideia emango diegu (gure talde partaideen ideia guztiak kontuan izanda, taldearen sinergia lortuz) eta gero beraiek, haien diseinatzaileek, aplikazioaren antolamendua eta diseinua jorratuko dute.

Bestetik, behin aplikazioa "sortuta" informatikoaren lana hasiko da. Informatiko horren eginkizuna proiektu honetan aplikazioaren zerbitzaileekin kontaktatzea eta gauzak adieraztea da, hau da diseinatzaileari emandako ideia behin garatuta egonda, informatikoak bezeroarentzat eskuragarri egingo du aplikazioa eta bai google-ekin zein sakeleko sistemekin (IOS eta android) adostuko du aplikazioaren benetako funtzionamendua.

Horrela lortuko duguna aplikazioaren erabilpen handiago bat izango da bezero guztiei erabilgarritasun aukera emanez.

Hurrengo jarduera produktuaren banaketa da jarduera honetan funtsezkoa da bai ios-en zein android-en laguntzarekin produktua merkaturatuko dugu eta bide batez produktuaren banaketa egingo dugu. Banaketarekin marketing-a jorratuko dugu. Gure marketinean helburu nagusia bezeroak lortzea, mantentzea eta haien beharrak kontuan izanda produktua hobetuko dugu, horretarako hasieratik kanpoko itxura asko zainduko dugu.

Beste jarduera garrantzitsu bat aplikazioaren funtzionamendua errazteko arazoak konpontzea da eta horretarako gure aliantza "magistrala" erabiliko dugu enpresa informatikoaren laguntza oso garrantzitsua izango da arazoak sortzen diren einen konpontzen joan ahal izateko. Arazoak egon ezgero 24 orduko laguntza sistema sortuko dugu.

